

Transexualitateari buruzko legeria

Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Espainia, Europa eta nazioarteako legeetan jasotako transexualitate egoeran dauden pertsonen eskubideak kontsulta itzazu www.naizen.eus webgunean.

Espainiako Estatua

Espainiako Konstituzioa

[Espainako Konstituzioa deskargatu \(PDF\)](#)

9. Art.

2. Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta taldea osotzen dutenena benetazko eta eragileak izan daitezen; baita galerazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere.

10. Art.

1. Pertsonaren duintasuna, hari dagozkion eskubide ukiezinekoak, nortasunaren hazkunde librea, lege begirunea eta besteeiko eskubideak ordenu politikoa eta giza bakearen oinarriak dira.

2. Konstituzioak onartzen dituen oinarritzko askatasun eta eskubideei dagozkien arauak honela adieraziko dira, hots, Giza Eskubide Orokorren adostasunez eta berauei dagozkien tratatu eta nazioarteko akordioen arabera hauek Espainak berretsi baititu.

18. Art.

1. Ohore, norberaren eta senitarteko barrukotasuna eta bakoitzaren irudi eskubidea garantizatzen da.

27. Art.

2. Hezkuntzak, helburu bezala du, giza nortasunaren aurreramendu osoa, bizikidetasun printzipio demokratikoak errespetatuz eta baita behin-behineko eskubide eta askatasunak ere

43. Art.

1. Osasun babesaren eskubidea aitortzen da.

2. Botere publikoei dagokie osasun publikoa antolatu eta babestea beharrezkoak diren zerbitzu eta prestamenen neurri aldeztuetatik bitartez. Honetarako, legeak ezarriko ditu guztien eskubide eta betebeharrak.

3/2007 LEGEA, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexuari buruzko erregistroko aipamen aldatzea arautzen duena.

[Legea irakurri BOEn](#)

3/2007 Legearen aldaketa, martxoaren 15ekoa, ;adin txikiko transexualen edota transen sexuari eta izenari buruzko erregistro aipamena aldatzeko aukera emateko, 4. artikuluan sexu aldaketa erregistratzeko ezarritako eskakizunak aldatzeko eta Espainian bizi diren atzerritarren integrazioa hobetzeko neurriak ahalbidetzeko.

Tramitatzen ari da.

Auzitegi gorena

(Auzi Zibilen Saila, Osoko Bilkura), irailaren 17ko 929/2007 zk. (RJ\2007\4968):

4. ZO (...) nortasuna askatasunez garatzeko muga bat dago (EK-ko 10.1) eta hori proiektatzen da: giza duintasunaren lesio batean, osasunaren tutoretza falta batean (EK-ko 43.1), intimitatearen eta norberaren irudiaren errespetuan (EK-ko 18.1), eta osotasun fisikoaren eta moralaren babesean (EK-ko 15. artikulua); badirudi, itxuraz, nortasunaren garapen askeak (aldaketaren oinarri eta justifikazio gisa onartua Sala honen 1988ko uztailaren 15eko (RJ 1988, 5722), 1989ko martxoaren 3ko (RJ 1989, 1993) 1991ko apirilaren 19ko (RJ 1991, 2725) eta 2002ko irailaren 6ko (RJ 2002, 7180) sententzien bidez) ondorio hau duela: sexua determinatzeko faktore psiko-sozialek duten prebalentzia kontuan hartuta, generoaren disforia dagoen kasuetan, nagusi izan behar dela sexu identitateari eusteko eskubidea norberaren identitatearen adierazpen bezala, nortasunaren ondasun bat baita (...) Eskubide horiek urratzen direla aipatzean, adierazi nahi da genero disforia izeneko patologia duen pertsonari errekonozitu behar zaiola sexu identitatea barneko sentimendu sakonenen arabera eratzeko eskubidea, beste sexu bateko kide izeatekoa; izan ere bestela ez da babesten integritatea, ez ematen osasun babesa, ez behar bezala tratatzen irudi eta familia intimitateko eskubideak. Hitz batean, nortasunaren garapen askea bere irudian proiektatzea da kontua eta pribatutasun eremu baten barruan garatzea, inbasiorik eta esku-hartzerik gabe.

1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa. Horren ordean, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dira hein batean.

2. Art.- Lege hau aplikatzean adingabeen interesa nagusi izango da, parte hartu dezakeen edozein beste interes legitimoaren gainetik

3. Art.- Adingabeek hauek errekonozitutako eskubideak izango dituzte: Konstituzioak eta Espainiak parte hartzen duen nazioarteko hitzarmenek, bereziki Nazio Batuen Haurren Eskubideei Buruzko Konbentzioak eta ordenamendu juridikoan bermatutako gainerakoak; inolako diskriminaziorik gabe ez jaiotzagatik (...) sexuagatik (...) edo beste gorabehera pertsonal batengatik.

11.2 Art.- Hauek izango dira botere publikoen jokatzeko garaian jarraituko dituzten printzipio nagusiak: a) adingabearen interesaren nagusitasuna (...) d) haren garapen pertsonala kaltetu dezaketen egoera guztien prebentzioa

2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa

1. artikulua. Printzipioak.

Espainiako hezkuntza-sistema Konstituzioaren balioei jarraiki antolatuta eta Konstituzioan aitortutako eskubideekiko eta askatasunekiko errespetuan oinarrituta dago, eta honako printzipio hauek ditu jarraibide:

a) Hezkuntzaren kalitatea ikasle guztientzat, ikasleen egoera eta zirkunstantziak edozein izanik ere.

b) Ekitatea; aukera-berdintasuna, hezkuntzan txertatzeko aukera eta diskriminaziorik eza bermatuko ditu, eta desberdintasun pertsonalak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak (ezgaitasunen ondoriozkoak bereziki) konpentsatzeko tresna izango da.

- c) Askatasun pertsonala, ardura, herritartasun demokratikoa, elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna, errespetua eta justizia bultzatuko dituzten eta diskriminazio mota oro gainditzen lagunduko duten balioen transmisioa eta praktikan jartzea

2. artikulua. Helburuak.

Espainiako hezkuntza-sistema honako helburu hauek lortzera bideratuko da:

- a) Ikasleen nortasuna eta gaitasunak erabat garatzea.
- b) Funtsezko eskubideekiko eta askatasunekiko errespetuan, gizonen eta emakumeen arteko eskubide-berdintasunean eta aukera-berdintasunean, eta ezgaitasunak dituzten pertsonen tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezan heztea.
- c) Tolerantzia eta askatasunean (elkarbizitzarako printzipio demokratikoen barruan), eta gatazken prebentzioan eta konponbide baketsuan heztea.
- d) Norberaren erantzukizunean eta meritu eta ahalegin pertsonalean heztea.
- e) Bakerako, giza eskubideekiko errespeturako, elkarbizitzarako, gizarte kohesiorako, lankidetzarako eta herrien arteko elkartasunerako prestatzea, eta izaki biziekiko eta ingurumenarekiko eta, bereziki, basoekiko eta garapen iraunkorrarekiko errespetua bultzatuko duten balioak eskuratzea.

17. artikulua. Lehen hezkuntzaren helburuak.

Lehen hezkuntzak haurrengan honako gaitasun hauek garatzen lagunduko du:

- a) Elkarbizitzaren balioak eta arauak ezagutzea eta estimatzea, haiei jarraiki jokatzen ikastea, herritartasuna aktiboki gauzatzeko prestatzea eta giza eskubideak errespetatzea (...)
- d) Kultura desberdinak, pertsonen arteko desberdintasunak ezagutzea, ulertzea eta errespetatzea (...)
- k) (...) norberaren eta besteen gorputza onartzea, desberdintasunak errespetatzea (...)
- m) Gaitasun afektiboak nortasunaren eremu guztietan eta besteekiko harremanetan garatzea, eta indarkeriaren, mota orotako aurreiritzien eta estereotipo sexisten aurkako jarrera hartzea.

23. artikulua. Helburuak.

Derrigorrezko bigarren hezkuntzak ikasleengan honako gaitasun hauek garatzen lagunduko du:

- a) Betebeharrak arduraz beren gain hartzea, besteekiko errespetuari dagokionez dituzten eskubideak ezagutzea eta gauzatzea, pertsonen eta taldeen arteko tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikan jartzea, elkarrizketan trebatzea giza eskubideak gizarte askotariko baten balio komun gisa finkatuta (...).
- c) Sexuen desberdintasuna eta horien arteko eskubide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna balioestea eta errespetatzea. Gizonen eta emakumeen arteko diskriminazioa eragiten duten estereotipoak baztertzea
- d) Gaitasun afektiboak nortasunaren eremu guztietan eta besteekiko harremanetan sendotzea, indarkeria, mota orotako aurreiritziak eta estereotipo sexistak baztertzea eta gatazkak era baketsuan konpontzea.
- k) Norberaren eta besteen gorputzaren funtzionamendua ezagutzea eta onartzea, desberdintasunak errespetatzea (...) Sexualitatea gizakiaren barne ikuspegia oinarri hartuta ezagutzea eta baloratzea (...).

8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzekoa

78. Art: (...) Oso hutsegite larriak izango dira hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen duintasun pertsonalaren aurkako jokabideak, generoan, sexu-orientazioan edo -identitatean, ... oinarritutako diskriminazio edo eraso bat jatorri edo ondorio duten jokabideak (...) zuzenketa-neurria, kasu horietan, ikastetxetik aldi baterako edo behin betiko kanporatzea izango da.

14/1986 Lege Organikoa, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa

3.2 artikulua: Osasun asistentzia publikoa espainiar guztiei zabalduko zaie. Osasun prestazioak berdintasun egoera batean jasoko dira.

16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Estatuko Osasun Sistemaren Kohesioa eta Kalitateari buruzkoa

2. Artikulua: Hauek dira lege honen printzipioak:

a) Osasun Sistema Nazionaleko erabiltzaileei zerbitzua benetako berdintasunean eta kalitatez ematea, bereziki saihestuko da gizonen eta emakumeen arteko bazterkeria oro osasun jardueretan.

SSI/2687/2012 Agindua, abenduaren 17koa, osasun kohesiorako funtsaren kudeaketa arautzen duen urriaren 20ko 1207/2006 Errege Dekretuaren I, II eta III. Eranskinak eguneratzen dituena

Xedapen iragankor bakarra. Erreferentziazko zentro, zerbitzu edo unitate bat izendatu gabeko patologiak, teknikak, teknologiak edo prozedurak.

1207/2006 Errege Dekretuko III eranskinean (*bertan jasotzen da 24. puntua. Transexualitatea artatzea*) jasotako patologiak, teknikak, teknologiak edo prozedurak artatzeko edo egiteko Osasun Sistema Nazionaleko erreferentziazko zentroak, zerbitzuak edo erreferentziak izendatzen ez diren bitartean; jarduera hau III eranskinean jasotako kontzeptuen eta zenbatekoen arabera konpentsatuko zaie egiten duten zentro guztiei. Behin patologia, teknika, teknologia edo prozedura baterako EZZU izendatu eta gero, soilik zentro, zerbitzu edo unitate haietara bideratutako jarduera finantzatuko da.

14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa

10. art. Denek eskubide hauek dituzte osasun arloko herri administrazio desberdinen aurrean:

1. Nortasuna, giza duintasuna eta intimitatea errespetatua izatea, ezingo delarik bazterketarik jaso arraza edo etnia jatorriagatik, generoa eta sexu orientazioagatik, desgaitasunagatik edo beste edozein gorabehera pertsonal edo sozialagatik.

13. Sendagilea eta gainerako profesional tituludunak aukeratzekoa, Lege honetan, hau garatzeko ematen diren xedapenetan eta Osasun Etxeetako osasun lana arautzen duten xedapenetan jasotako baldintzen arabera.

8/1996 Errege Dekretua, urtarrilaren 15ekoa, Osasuneko Institutu Nazionalako zaintza espezializatutako zerbitzuetan sendagilea modu askean aukeratzeari buruzkoa

1. art: Osasuneko Institutu Nazionalaren kudeaketa eremuan Gizarte Segurantzaren zaintza sanitarioa jasotzeko eskubidea duten pertsona guztiak arreta espezializatuko sendagilea aukeratzeko eskubidea izango dute, Errege Dekretu honetan zehaztutakoaren arabera.

2. art: Aurreko artikuluko eskubide hori modu indibidualizatuan erabiliko da. Adingabekoen edo desgaitasundunen kasuan, legezko ordezkarien bidez egingo da, Kode zibilak 162.1 artikuluan xedatutakoa baztertu gabe.

3. art: Erabiltzaileak sendagilea aukeratu ahal izango du kanpo kontsultetako arreta espezializaturako; aukeratu ahal izango duelarik nork artatu: lehen mailako arretako taldeari esleitutako mediku espezialistak edo libre aukeratzeko kanpo kontsultetan diharduten mediku espezialisten artean, izan erabiltzaileari dagokion erreferentziazko ospitalekoa edo izan haren menpeko espezialitate zentroetakoa.

4. art: Erabiltzaileak espezialitate hauetan erabili ahal izango du aukeratzeko eskubidea: kardiologia, Kirurgia orokorra eta digestio-aparatukoa. Dermatologia mediku-kirurgikoa eta benereologia. Digestio-aparatua. Endokrinologia eta nutrizioa. Neumologia. Neurologia. Obstetria eta Ginekologia. Oftalmologia. Otorrinolaringologia. Traumatologia eta kirurgia Ortopedikoa. Urologia.

6. art: Medikue orokorrak edo pediatriak adierazten duenean kanpo kontsultetan atenditu beharra, erabiltzaileak errege-dekretu honetako 3. Artikuluan aurreikusitako eran aukeratu ahal izango du mediku espezialista.

Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Espainia, Europa eta nazioarteako legeetan jasotako transexualitate egoeran dauden pertsonen eskubideak kontsulta itzazu www.naizen.eus webgunean.

